



## IRIZPENA 23/01

### BERTARATUAK

Maite Alonso, presidentea  
Sonia Aldave  
Iker Aldazabal  
Diego Bande  
Nerea Begoña  
Ander Bouzas  
Begoña Cabria  
Agustín Eizagirre  
Xabier Etxaniz  
Pablo García de Vicuña  
Lierni Lizaso  
Carmelo Martínez  
Aitor Mujika  
M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren  
Patxi Olabarria  
Eduardo Ogando  
Aitziber Oliban  
Carlos Pereda  
Idoia Pujana  
Ainhoa Rotaetxe  
Cristina Sánchez  
Lucia Torrealday  
Eduardo Ubieta  
Ane Urkiola  
Amaia Urrutia  
Lourdes Villardón  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2023ko urtarrilaren 10eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko txostena: **Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzko Irizpena.**

### I. AURREKARIAK

Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezartzen du haur eta nerabe guztiak dutela hezkuntzarako eta irakaskuntzarako eskubidea. Bestalde, ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babestekoak, adierazten du funtsezkoa dela adingabearen giza duintasunarekiko errespetua bermatzea eta sustatzea, bai eta osotasun fisiko eta psikologikorako eskubidea ere, edozein indarkeria mota prebenituz. Familia- eta eskola-eremuak bermatzen ditu eskubide horiek. 243/2022 Errege Dekretuak, apirilaren 5ekoak, Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen ditu.

Irailaren 6ko 127/2016 Dekretuak Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen du.

## **II. EDUKIA**

Dekretu-proiektuak 37 artikulua ditu, 4 kapitulutan banatuta.

Kap. I, Xedapen Orokorrak (1. artikulutik 9.era)

II. kapitulua, Curriculuma ( 10etik 18ra)

III. kapitulua, Kudeaketa pedagogikoa ( 19tik 27ra)

IV. kapitulua, Mailaz igotzeko ebaluazioa eta titulazioa ( 28tik 30era)

Gainera, bost xedapen gehigarri ditu: Beste irakaskuntza batzuekin bateragarri egitea (1. xedapen gehigarria) Erljioaren irakaskuntza (2. xedapen gehigarria), Atzerriko hizkuntzetan emandako irakaskuntzak (3. xedapen gehigarria), Helduen Hezkuntza (4. xedapen gehigarria) eta Batxilergoko modalitate berriak lortzea (5. xedapen gehigarria).

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du irailaren 6ko 127/2016 Dekretua, Batxilergoko curriculuma ezarri eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Azken xedapenetako lehenengoak ezarpen-egutegia ezartzen du, eta bigarrenak, berriz, Batxilergoan tutoretza ezartzeko egutegia. Hirugarrenak ezartzen du noiz sartuko den indarrean.

Dekretu-proiektuak 5 eranskin ditu. I. eranskinak Ikasleen irteera-profila ezartzen du, eta bertan jasotzen dira funtsezko konpetentziak; II. eranskinak Ikasgaien curriculuma, gaitasun espezifikokoak, jakintzak eta ebaluazio-irizpideak jasotzen ditu. III. eranskina Ikaskuntza-egoerei buruzkoa da. IV. eranskinak Batxilergoko ikasgaien arteko jarraitutasuna jasotzen du, eta V. eranskinak Batxilergoko hiru modalitateen gutxienezko eta erreferentziazko ordutegia jasotzen du.

## **III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Kontseiluak joan den azaroaren 23an jaso zuen Dekretu-proiektu hau, eta urtarrilaren 10ean egingo den Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartuko da dagokion irizpena, hala badagokio; beraz, egiteke dauden gainerako izapideen ondoren, ikasturtea oso aurreratuta argitaratuko da EHAAn.

Kontseiluak badaki ikastetxeak ikasturte honetan hasiak direla Batxilergoko 1. mailan aldaketak ezartzen, eta, beraz, komenigarria izango zatekeen Dekretu hau behar besteko aurrerapenaz argitaratzea, ikastetxeek eta hezkuntza-komunitateak aldaketak planifikatu ahal izateko, egoera berrira egokitzeko.

Proposamen horren edukia aztertzeko, indarrean dagoen 2016ko Dekretua eta Hezkuntzari buruzko Legearen Aurreproiektua hartu dira erreferentziatzat, Kontseilu honek berriki txostena egin baitu.

Adierazi behar da gai orokorrenetako batzuk, hala nola hizkuntza-markoa, ikastetxeen autonomia edo berrikuntza, ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza, modu zabalagoan planteatu direla aipatutako Aurreproiektuan, eta, beraz, Dekretua onartzen denean maila handiagoko arau-esparru bati lotuta egongo dela ulertzen da.

Agerikoa dirudi Dekretu berri honek aurrera egiteko asmoa duela irakasleen esku-hartzeak eta Batxilergoko gaitasunen garapenak eskatzen duten aldaketari dagokionez. Aldaketa hori hitzaurretik islatzen da, *“XXI. mendeko Ezagutzaren Gizarteak aldaketa sakonak dakartzala adierazten baitu, eta aldaketa horiek eskaera kognitibo berriak eta ikasleek eskuratu beharreko gaitasun berriak dakartzatela. Horregatik, irakasteko modu berriak eta ikastetxean elkarri eragiteko modu berriak behar dira”*.

Indarrean dagoen 2016ko Dekretuak ikasleen irteera-profil gisako kontzeptuak eta proposamen berrian zehazten diren gaitasunak sartzan ditu, Europar Batasuneko Kontseiluak 2018an ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruz proposatutako erreferentzia gehituz.

Egia esan, kontzeptu horiek araudian agertzen badira ere, aldaketari buruzko ikerketek erresistentziaz eta horiek gauzatzeko denbora eta prestakuntza beharraz ohartarazten digute.

Ildo horretan, hitzaurreak eta artikuluek, besteak beste, hiru elementu jorratzen dituzte, eta elementu horiek indartu egiten dute aurrera egiteko beharra honako hauen inguruan:

- Konpetentzietan oinarritutako curriculumak *“...ikaskuntza sakon eta funtzional baterantz bideratzen da, non ikasten dena testuinguru desberdinetan erabil daitekeen, denboran zehar irauten duena eta egoera errealetan arazoak konpontzea ahalbidetzen duena....”* Hori dela eta, 9. artikuluan funtsezko gaitasunak adierazten dira eta 11tik 15era definitutako gai bakoitzarekin lotzen diren berariazko gaitasunak.
- Irakasleen rola *“...ikasketa partekatura edo autonomora bideratutako jardueren gidari, orientatzaile edo estimulatzaile gisa jardun behar duten Batxilergoko irakasleak, bai eta*

*talde-lanerako edo elkarlanerako, proiektukako lanerako edo ikasleen garapen integrala eraginkortasunez laguntzen duen irakaskuntza eta ikaskuntzako beste edozein modalitatetarako ere.” Zehazki, 24. artikuluan, Irakasleen gaitasun-profila, prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa.*

- Ikasleen ongizate emozionalari arreta berezia eskaintzea eta hezkuntza-komunitate osoa zaintzea, Tutoretzari eta orientazioari buruzko 25. artikuluan.

Artikuluak aztertuta, Kontseiluaren gogoeta eta proposamenak aurkezten dira, bi ardatz hauen inguruan:

- 1.- Alderdi berriak proposamenean
- 2.- Artikuluen gai espezifikoak

### **1.- Alderdi berriak proposamenean**

a) **2.art**, Definizioak; helburuez, ebaluazio-irizpideez, irteera-profilaz eta funtsezko gaitasunez eta gaitasun espezifikoez gain, oinarrizko jakintzak, prestakuntza-ebaluazioa, esparrua, ikaskuntza-egoerak eta ikaskuntzaren diseinu unibertsala definitzen dira.

- ✓ **Kontzeptu multzo horren definizioa egokia da eta, bereziki, berritzaileenak. Hala ere, ikaskuntza-egoeren definizioari dagokionez, uste dugu 2. paragrafoa zaila dela ulertzen, eta, horregatik, honako hau kentzea proposatzen dugu:**  
*“Ikaskuntza-egoeretatik abiatuta egindako lanari esker, edozein maila, arlo, gai edo eremutako ikastaroaren programazioa artikulatu daiteke, gaitasunen araberako ikaskuntzaren ikuspegiaren oinarri diren jakintzak eta gaitasunak lotzen dituzten testuinguruetan oinarrituta.”*

b) Batxilergoko modalitate orokorra **3.artikuluan** sartzen da, egungo modalitateen hautaketa espezifikoaren inguruan zalantzak dituzten ikasleei irtenbide berria emateko.

- ✓ **Kontseiluak uste du aniztasunari ematen zaion erantzunaren alde egiten duela, aukerak zabaltzen baitira.**

c) **7. artikuluan** Batxilergoaren helburu orokorrak zehaztea argigarria da, ez baitira ageri egungo Dekretuan; hala ere, p) puntuan honako idazketa hau proposatzen da:

- ✓ **Aldaketak ezagutzea eta sustatzea, GJHek planteatzen dituzten erronkei aurre egiteko.**

d) **8. artikulua**ren 5. puntuan berrikuntza gisa aipatzen da Euskal Hezkuntza-sisteman berandu sartzen diren atzerritar jatorriko ikasleen harrera eta hizkuntza-arreta. Jakina denez, Batxilergoko irakaskuntzatik salbuetsita dauden ikasleak.

- ✓ **Hala ere Kontseilu honi egokia iruditzen zaio egoera- eta motibazio-aniztasuna kontuan hartuta gutxieneko ezagutza ahalbidetzea, ikasle horien inklusioa errazteko.**

e) **9. artikulua** Batxilergoko etapa amaitzean ikasleek duten irteera-profilari eta funtsezko gaitasunei buruzkoa da. Indarrean dagoen Dekretuak bi erreferentziak zituen, baina oraingo honetan, edukian aurrera egin da. Alde batetik, irteera-profilari dagokionez, eranskin bat gehitu da, Batxilergoa amaitzean kontuan hartu beharreko funtsezko gaitasun bakoitzaren deskriptore operatiboak jasotzen dituen. Gainera, funtsezko gaitasunen zerrenda aldatu egin da, Europar Batasuneko Kontseiluaren 2018ko gomendia kontuan hartuta, 2016ko Dekretuan kontuan hartutakoa baino gaurkotuagoa baita. Bestalde, funtsezko gaitasunen erlazioak aurreko diziplinetako batzuk zeharkakoekin uztartzen ditu, eta harreman osoa eta integratuagoa sortzen du.

**II. eranskinean**, irakasgai bakoitzean txertatutako eta ebaluazio-irizpideekin lotutako gaitasun espezifikoen aurkezpena – mailaka adierazten dira – eta oinarrizko jakintzei buruzko erreferentzia egungoa baino zabalagoa da, indarrean dagoen dekretuaren eduki-multzoen karakterizazioari dagokionez.

- ✓ **Kontseilu honek modu positiboan balioesten ditu gaitasunak eguneratzea, oinarrizko eta zeharkako gaitasunak integratzea eta ezarritako harremana, errazago ulertzen eta, ondorioz, ikasgaiak programatzen laguntzen duelako.**

f) Curriculumaren alderdi orokorreari buruzko **10. artikuluan**, ikaskuntza-egoeren kontzeptua sartzen da. Kontzeptu hori ere indarrean dagoen Dekretuan dago, baina oraingo proposamenean garatuago agertzen da. Izan ere, eranskin bat aurkeztu da, III-a, eta bertan zehatz-mehatz azaltzen da zer suposatzen duen eta nola diseinatu behar diren (hasierako, garapeneko eta amaierako faseak), bai eta beste elementu batzuk ere, hala nola identifikazioa, esparrua edo enkoadraketa, antolakuntzako curriculum-elementuak eta nahitaez garatu behar diren ebaluazio-tresnen erabilerari buruzko aipamen txiki bat.

- ✓ **Kontseiluari egokia iruditzen zaio aurrerapena.**

g) Ikasgaien banaketa **11. artikulutik 17ra** jasotzen da. Berrikuntza gisa, komeni da nabarmentzea ikastetxeak norberaren aukerako orduak murriztu dituela bi mailetan, Tutoretzako ordu 1 sartu baita gai komun gisa. Gainera, 2. mailan, Filosofiaren Historia

gai komuna da, 3 ordukoa. Horren ondorioz, indarreko Dekretuan gutxienez 4 ordu erreserbatzen baziren (2 ordu 2 gai), gaur egun 3 ordu proposatzen dira gai baterako.

Berritasun gisa, 2. mailarako hautazko irakasgaien artean Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna irakasgaia sartu da.

h) **18. artikulua** Batxilergoa erregimen arrunteko hiru ikasturtetan antolatzea arautzen du.

- ✓ **Aukera berri hori positibotzat jotzen du Kontseiluak, ikasleen aniztasuna aintzat hartzen duten erantzunei dagokienez.**

i) **19.artikuluan**, Ikastetxeen autonomiari dagokionez, Proiektu Estrategikoak egitea aipatzen da. *"...proiektu horiek garatzeko, Hezkuntza-proiektuan ezarritakoa hartuko da erreferentziazat."*

- ✓ **Kontseiluak ez daki zer esan nahi duen. Gure ustez, hain garrantzitsua den alderdi hori argitu egin beharko litzateke, izen hori bat etor baitaiteke aipatutako Programa-kontratuekin Legearen aurreproiektuaren 36. Artikuluan, 97. artikuluan, Ikastetxeetako kudeaketa-autonomiako tresnei buruzkoa, 100. Autonomia pedagogikoari buruzko edo 101 artikuluan, Antolaketa-autonomiaren eremuari buruzkoa..**

j) **23. artikulua** Irakasle-taldeari buruzkoa da, eta **Kontseiluak positibotzat jotzen dituen** zuzendaritza-taldearen eta zuzendaritzaren eskumenetako batzuk biltzen dituela.

k) **24. artikulua** honi dagokionez:Irakasleen gaitasun-profila, prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa,

- ✓ **Kontseiluaren ustez, 5. puntua, irakasleen ebaluazioari buruzkoa den bakarra, baliogabetu egin beharko litzateke, kontuan hartzen baita 34. artikuluan. (Hezkuntzako Ikuskaritzak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua eta ebaluazio-prozesuak gainbegiratzea.)**
- ✓ **Gainera, interesgarritzat jotzen du artikulua honetan ohartarazten duen irakasleen gaitasun-profilaren definizioan alderdi batzuk aurreratzea.**

l) **25 artikuluek** zehatz-mehatz arautzen du tutoretza eta orientazioa. Kontseiluaren ustez, alderdi horiek oso garrantzitsuak dira, eta honako gogoeta hauek egiten ditu:

- ✓ 26. eta 35. artikuluetan ikastetxeko aholkularitza- eta orientazio-taldea aipatzen da, baina ez da arautzen nortzuk osatzen duten eta zein eginkizun dituzten.
  - ✓ Orientazio eta tutoretza-ekintzako plana aipatzen da (gaur egun Tutoretza-ekintzako plana), eta 21. atalean adierazten da Sailak orientabideak emango dizkiela ikastetxeei plana egin eta garatzeko. Gainera, gai horri buruz, Azken xedapenetatik bigarrenak ezartzen du pixkanaka ezarriko dela eta irakasle guztientzako prestakuntza egongo dela. Kontseiluaren ustez, Orientazio eta Tutoretza Planaren alderdi batzuk gehiago zehaztu beharko lirateke, gutxienez agertu behar diren atalak adierazita, indarrean dagoen Dekretuan tutoretza Planari dagokionez egiten den bezala.
  - ✓ 18. eta 19. atalek lotura zuzena dute ikasleen ebaluazioarekin, eta, beraz, IV. kapituluan (Ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa) sartzea proposatzen da. 28, 29 edo 30, dagokionaren arabera.
- m) Batxilergoko titulua lortzeko, **31. artikulua**, salbuespen gisa, gainditu gabeko gai batekin baldintza jakin batzuetan lortzeko aukera aurreikusten du.
- n) **32. artikuluan**, Batxilergoko titulua beste irakaskuntza batzuetatik lortzea dago.
- ✓ **Bi proposamen horiek positibotzat jotzen dira Kontseiluan, egoera-aniztasunari erantzuten saiatzen baitira.**
- ñ) Artikulu berriak sartu dira gai batzuei garrantzi handiagoa emanez. Ebaluazio objektiboa eta ikasleei eta familiei informazioa emateko eskubideari buruzko **35.artikulua**. Egiazkotasunari, segurtasunari eta konfidentziasunari buruzko **36.**, Dokumentazioaren zaintzari buruzko **37.**, Informazio hau, indarrean dagoen Dekretuan hainbat artikulutan sakabanatuta agertzen ziren
- ✓ **Kontseilu honek proposatu du artikuluko horietako batean sartzea familiek edo legezko tutoreek dokumentazio ofiziala eskuratzeko modua arautzea.**
- o) Bigarren xedapen gehigarriari dagokionez,
- ✓ **Tutoreari esleitutako Komunitateari zuzendutako proiektuak ez du Erljioaren gaiaren alternatiba izan behar. Kontseilu honek ekimen mota hori proposatzen du tutoretza-ordutegian sartutako erreferente gisa. Gai horri**

dagokionez, II. eranskinean jaso beharko litzateke haren garapena, gainerako gaiekin batera.

- ✓ Bestalde, proposatzen du Erljio-irakaskuntzetako kalifikazioak ez direla kontuan hartuko beste ikasketa batzuetara sartzeko batez besteko nota lortzean, ezta ikasteko bekak eta laguntzak lortzeko deialdietan ere.

p) Atzerriko Hizkuntzetan ematen diren irakaskuntzei buruzko Hirugarren Xedapen Gehigarria proposatzen da, eleaniztasuna egituratzeko aukerak hobetzen dituen.

- ✓ Kontseiluak modu positiboan baloratzen duela.

## 2.- Artikuluen gai espezifikoak

a) 5 artikuluan Batxilergoko etapako Printzipio orokorrak.

- ✓ Titulua, Batxilergoko Ezaugarri Orokorren izenburuarekin aldatzea proposatzen da, mota desberdinetako gaiak agertzen baitira, eta horietako batzuk ez datoz bat haren enuntziatuarekin.
- ✓ Artikulu honen 6 puntua, 6. Artikuluan, Printzipio pedagogikoak, 4, puntuan kokatzea proposatzen da.

*“Batxilergoko curriculuma zehazteko eta garatzeko, ikasle guztiak gizarteratu behar dira, garapen pertsonal orekatua izan behar du, herritartasun kritikoa, berdintasunezkoa, aktiboa eta eraikitzailea eraiki behar du, eta ondorengo prestakuntza-prozesuetarako sarbidea erraztu behar du.”*

- ✓ Proposatzen da 5. artikuluan 7. puntua 26 artikuluan, Batxilergoko etaparako trantsizioa, lehenengo puntuan kokatzea.

*“Ikastetxeek, ikasleak onartzeko araudiaren arabera, aukera-berdintasuna sustatuko dute ikastetxera sartzean eta bertan dauden bitartean. Horretarako, ikasle guztiei hezkuntza-aukera berberak eskainiko dizkiete, eta diskriminazio positiboko ekintzak antolatuko dituzte, inklusiboak, hezkuntza-prozesua babesteko eta eskola-porrotaren arriskuari aurrea hartzeko, desabantaila ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo pertsonalak dituztenen alde.”*

b) 6. art. Batxilergoko etapako printzipio pedagogikoak:



- ✓ Kontseiluak proposatu du "bereziki" esamoldea kentzea eta aniztasun-kontuek eragindako indarkeriei erreferentzia egitea. Gainera, 8. puntu hori 2. artikularekin bateratzea proposatu du. 7, honela utzita:

Arreta berezia jarri behar zaio bizikidetzari, eta, horretarako, gai guztietatik honako hauek sustatuko dira zeharka: genero-ikuspegia, bakearen aldeko hezkuntza, osasunerako hezkuntza, sentsibiltate estetiko eta sorkuntza artistikoa, iraunkortasunerako eta kontsumo arduratsurako hezkuntza, elkarrekiko errespetua eta indarkeriazko edo diskriminaziozko jarrera eta portaeren prebentzioa, bai eta berdinen arteko lankidetzaren ere. **Bereziki, indarkeria-motaren bat gertatzen denean sortzen diren ondorezko identifikatu behar dira, bereziki—hala nola—indarkeria matxistarekin, LGBTI fobikoarekin, arrazistarekin edo edozein motatako aniztasunarekin zerikusia dutenak.**

c) 7.art. Helburuak

- ✓ a) atalean ez da argi geratzen EAEko balioen aipamena, eta, beraz, zehaztu egin behar litzateke.

*“Euskal Autonomia Erkidegoaren balioek inspiratutako kontzientzia zibiko arduratsua lortzea.”*

- ✓ f) atalean, komenigarria litzateke ahoz zein idatziz zuzen adierazi behar den zehaztea.

d) 8.artikuluaren Hizkuntza-markuari dagokionez, Batxilergoa amaitzean zer lortu behar den zehaztasunik gabe definitzen du, eta hizkuntza ofizialak ondo menderatzen direla aipatzen du, “...eskakizun-maila jakin bat duten testu-mota ugari ulertzeko orduan, bai eta horietan zentzu inplizituak ezagutzeko edo modu arin eta espontaneoan adierazteko orduan ere, esfortzu-adierazpen oso nabarmenik gabe.”

- ✓ Hori dela eta, Kontseiluak proposatu du lorpen-maila zehaztea, kontuan hartuta orain arte Batxilergoa amaitzen duten ikasleei B2 maila ziurtatzen zaiela eta Legearen aurreproiektuan B2 maila hori Derrigorrezko Hezkuntzaren amaierari esleitzen zaiola.

e) 21 art. ordutegiari buruz,

- ✓ Proposatzen da “ordu” erreferentziaren ordeztasuna saioa jartzea, ez baitira beti baliokideak.

f) **22 art.** familiek eta legezko tutoreek hezkuntza-prozesuan duten lankidetzari eta inplikazioari buruzkoa da.

- ✓ **Kontseiluak gomendatzen du artikulua horretan indarrean dagoen erreferentzia sartzea. Egungo dekretuaren 28. artikulua, familiekiko edo legezko tutoreekiko hezkuntza-konpromisoak sustatzeari buruzkoa. Ekimen hori interesgarritzat jotzen da, hezkuntza-prozesuaren bilakaeran duen inplikazioagatik.**

g) **26 art.**, Batxilergoko etaparako trantsizioa, 3. eta 4. puntuetan, 33. artikuluan (Ebaluazio-dokumentu ofizialak) hobekien kokatuta dauden ebaluazio-dokumentuak aipatzen dira.

- ✓ **Hori dela eta, Kontseiluak puntu horiek 26 artikulutik kentzea proposatzen du, etapa-amaierako txostenari buruzko erreferentzia barne.**

h) **27 art.**, Baliabide eta material didaktikoak,

- ✓ **Kontseilu honek zailtasun handiak ikusten ditu “Ikuskaritzak erabilitako material eta baliabide didaktikoen eta Dekretu honetan proposatutako hezkuntza-ereduaren arteko koherentzia baloratzeko.” Hori dela eta, berriz formulatzea proposatzen du.**

i) **28.artikuluaren** 2. eta 3. puntuak kontraesankorra da. Alde batetik, 2. puntuan, ikasleen ebaluazioa globala, jarraitua eta prestakuntzakoa dela kalifikatzen du, funtsezko gaitasunen garapen-mailaren eta ikaskuntza-prozesuan izan duten aurrerapenaren arabera. 3. puntuan, izaera jarraitua eta gaika bereizia aipatzen da.

- ✓ **Kontseiluaren ustez, argitasun ezagatik zehaztu behar da gai hori; izan ere, ebaluazioa jakintzagaien arabera bereizten bada, ulertzen da irakasgai horretako irakasleak ebaluatzen duela. Kasu horretan, ezaugarri orokorra irakasle-taldeak 9. eta 10. puntuetan aipatutako erabakiak hartzen dituenean soilik ulertuko da.**

j) **29 art.** Ikasturte-amaierako ikaskuntzen kalifikazioari buruz, 4. eta 6. puntuek 28. artikuluan 10. puntuan araututakoa errepikatzen dute., beraz,

- ✓ **Kontseilu honen ustez, kendu egin behar da, aurreko artikuluan hobeto kokatuta dagoelako.**



k) 2016ko Dekretuan garatzen den hezkuntza- eta ikerketa-sistemaren ebaluazioari dagokionez.

- ✓ **Hezkuntza Legearen aurreproiektuan jorratutako gaia da, eta aztertutako Dekretuan nolabaiteko isla izan beharko luke. Kontseiluak aipamenen baten falta sumatzen du.**

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 10ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA



**Voto particular de FAPACNE al Dictamen al proyecto de Decreto por el que se Implanta el Currículo de Bachillerato**

Voto de FAPACNE en contra del Dictamen al proyecto de Decreto de Bachillerato por considerar que en dicho texto legal no existe garantía suficiente para amparar el Derecho de los padres a elegir el tipo de educación que esté de acuerdo con sus propias convicciones.

Consideramos que se trata de una apuesta relativista, adoctrinante, con gran carga ideológica.

Las administraciones públicas deben colaborar subsidiariamente en la tarea educativa, que recae en los padres en primer lugar.